Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Santa Grazi

Aurkibidea

Udalerria: Santa Grazi

Sarrera



Urdatx bezala ere ezaguna. Zuberoako udalerria da, Basabürüan kokatua. Bi herrixkak osatzen dute: Santa Grazi kasernak eta Santa Grazi herriak; eskola eta udaletxea kasernan daude eta eliza, berriz, bost kilometrora. Orografia malkartsua du, eta hainbat mendi daude haren lurretan: Binbaleta, Izarbe, Jora, Lakhura eta Ützіagaña, besteak beste. Udalerria Uhaitzandiren hainbat ibaiadarrek zeharkatzen dute; herrian zentral hidroelektriko bat dago. Santa Grazi ezaguna da bertan dauden Kakuetako arroila eta Donejakue bideko eliza erromanikoa direla eta. Eliza XI. mendekoa da, eta sortu zenean erromesentzako ospitalea ere bazuen. Santa Grazik Nafarroarekin egiten du muga. Zuberoan, udalerri hauek ditu mugakide: Ligi-Atherei eta Hauze iparraldean eta Larraine mendebaldean.

- **Biztanleak**: 209
- **Euskaldunak**: %70,52

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **7**
- Zintak: **12**
- Pasarteak: **4**
- Transkribatutakoak: **4**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **0**

Proiektuak

- Agustin Mendizabalen fondoa
- Euskal Herriko Ahotsak
- Rudolf Trebitsch-en euskal grabazioak (1913)

Hizlariak



Anne Marie Basahaun Aguiar *Goihenetxea* (1927)

Aña bezala ezaguna. Bere aita eta ama Petti eta Xaxi deitzen ziren. Goihenetxea etxean bizi ziren, Santa Grazi herri erditik aski urrun, sei kilometrora. Aita etxondokoa zen eta ama, berriz, Santa Graziko beste etxe batekoa. Aitak, laborari izateaz gain, beste jendeentzat eskalanpuak eta laneko tresnak egiten zituen. Ondorioz, Añaren amak eta ahizpek (hiru ahizpa ziren) zuten etxondoa gehienbat joanarazten. Aña Santa Graziko beste etxe batera ezkondu zen (Aguiar familia) 1948an. Bere gurasoak bezala, laborari ziren Aña eta senarra. Sei seme-alaba izan zituzten.



Noelie Bidalun Etchemaite (1927)

Santa Graziko Akoze etxean sortua, Caserna auzoan. Aita Junes Bidalun zuen, etxondokoa, eta ama Marijana Soko, Maiastüia etxekoa, Santa Grazikoa hura ere. Laborariak ziren. Anai bat zuen, gazteagoa, Beñat. Aitaren ama beraiekin bizi zen. Noélie Bordelera joan zen lanera, 19 urtetan, osaba-izeba batzuengana. Jendeen etxeetan garbiketa egiten zuen. 21 urtetan neskato joan zen; Kortondo zen nagusia, Larrainekoa, eta ostatu bat zuen: "Le Lion d'Or". 18 urtez zerbitzari egon zen jatetxe hartan. Bordelen ezagutu zuen senarra izango zuena: Larraineko Jean Pierra Etchemaite. 1956an ezkondu ziren. Senarra itsasontzi batean lanean ari zen. Bi alaba izan zituzten. Erretretan, Zalgizera joan ziren bizitzera.

Junes Casenave Harigile (1924)



Santa Grazin sortua, Arhanpetegia etxean. Familia karrika erditan zen etxe batera joan zen bizitzera ondotik. Ama, Mailuisa Harigile, Santa Grazin sortua zen, Gaxeio etxean. Aita, Bernard “Beñat” Casenave, bearnesa zen, Aspe ibarreko Escot herrikoa. Oihanzain zen, eta Santa Grazin izan zen izendatua (1945an zendu zen). Hiru senidetan bigarrena zen Junes, denak mutikoak. Aita bearnesez eta frantsesez mintzo zitzaien; ama, aldiz, euskaraz. Anaien arteko mintzaira euskara zen. Junes 10 urte arte herriko eskolan ibili ondoren Betharram apez eskolara joan zen ikasketen segitzera, Lestelle-Bétharram herri bearnesera. 8 urte zituenetik bazekien apeztu nahi zuela. Gerla bukaeran, Alemaniara joateko deitua izan zen, eta Betharram aldean gorde zen. 1948an apeztu zen, Betleemen. Betharramen 4 urtez irakatsi zuen, 12 urtez Limoges herrian eta ondotik Donapaleuko Etchecopar kolegioko buru egon zen 17 urtez. 1981an, Xiberoara bueltatu zen: bi urtez Larrainen egon zen eta 27 urtez Altzain. 2010ean Donapaleuko Betharramisten etxera erretiratu zen. Irakaskuntzaz eta apez lanez gain, gai ezberdin anitz landu ditu: euskara, mitologia, yoga eta lasaialdiak, landareak.

Michel Gustarriet (1867)

1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa. 46 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. Irakaslea zen. Euskalkia: zuberera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.200 eta 2.201

Gracieuse Hondagneu (1895)

1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa. 18 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. Pierre Hondagneuren alaba. Euskalkia: zuberera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.204 eta 2.205

Pierre Hondagneu (1870)

1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa. 43 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. Ostalaria eta errementaria. Euskalkia: zuberera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.206 eta 2.207



Junes Xübürü (1936)

Santa Graziko Iriartea etxean sortua. Gerora, Atharratzen bizi izandu da. Kantaria. Diska askotan parte hartu izan du.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Ohiturak eta bizimodua

1.1. Santa Graziko gizona eta Basajauna

- **Hizlaria(k)**: Hondagneu, Gracieuse
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Trebitsch, Rudolf
- **Erref**: SAN-001/001
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:02
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Santa Graziko bizilagun bat mugaz bestaldetik etxerantza zihoan kontrabandoko gazta zuela. Ekaitz izugarri batek harrapatu eta kobazulo batean babestu zen. Basajauna zegoen han, askotan deabruarekin lotu izan dena. Basajaunak hiru egi esateko eskatu zion, bestela arriskuan egongo zela.

Transkripzioa
Beste ordüz Sarko Santa Grazikua jiten zelarik Españatik bizkarra gazna kuntrebandazko kargatürik garden lotsaz sarthü zen Ehujarreko arrolla handian eta hantik ezin jelkiz zelarik ülüna jin zen eta tenpesta izigarri bat ere bai. Lotsatürik biderik ezin heretsatüz zelarik ikusten dü argi bat arphe handi baten pian, harat bürüz indar egiten du, ziularik: izanik ere debria bere adar okherreki behar diat horra illhaintü. Ediren zian ez debria bena basa jauna ari zela ezpel adar handi baten phuntan ahari baten osorik erratzen. Sarko harriturik etzen zotükhatzen ahal, basa jaunak erraiten dero: sar adi ahari hau janen diagü biek eta denbora hartan hirur egia handi ezpadeitak erraiten, nik hi janen hait, aspaldian kiristi aragiaren txesta nahian beniz. Sarkok erraiten dero botza aphaltuz: jauna, erraiten dizie gai zohardian argizagiak argitzen dialarik: hau egüna bezan eder den egiraia düzü; nik eztit hola edireiten. Arrazu duk, bat badük edirenik. Jauna erraiten dizie mestüra jan batzutarik jaten ari delarik: hau ogia beno hobe düzü: nik eztit hola edireiten. Arrazu dük, dio basa jaunak. bida batük edirenik. Jauna uste ükhen banü zure heben batzia gaur anündüzün hunako. Hori dük egiarik handiena dio basa jaunak, abil bena ehadila ene bidian üsü agi.

1.2. Emaztegaia tximiniatik gora

- **Hizlaria(k)**: Hondagneu, Gracieuse
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Trebitsch, Rudolf
- **Erref**: SAN-001/003
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:02:09. **Bukatu**: 00:03:52

- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Emaztegaia ikustera joan eta hau tximiniatik gora nola zihoan ikusi zueneko istorioa. Senargaiak gauza bera egin zuen, emaztegaia jarraiki. Orduan ikusi zuen sorgina zela eta deabrua ere bertan zela.

Transkripzioa
Bidabe Santa Grazikua emaztegeiaren ikhustera berantto juaiten zelarik sükhalteko leiho xilotik so jarri zen barna sarthu beno lehen; ikhusten du neskatila su pazterreko harri bat eraikirik hantik üntamio bat har eta khorphitzaren üntatzen eta berhala tximinian gora juaiten. Sartzen da barna et'emaztegeiaren ber üntamiuaz zerbütxatzen da eta berbidiaz airian juaiten. Heltzen da ordoki eder batetara nun beitzen musika süerte orotarik. Han ikhusten du emaztegeia belhagile lagünekin dantzan. Jargü eder batetan zen ororen nausi adar handi eli bateki. Aski libertitu zirenian nausia eman zen belhaniko büria, jargian pausatürik eta zaragollak aphaltürik, oro herrokan juan ziren ordian haren gibel aldiari pot emaitera. Bidabek beitzian xakolan eskalanpu adelatzeko phuntsu txorrotx bat ahuaz emaiteko phartez phuntsuaz eman zeron pota ahal bezan azkarki. Nausiaren arrama izigarri bateki oro hantik galdü ziren eta Bidabek ediren zian bere buria harri eta elhorri baizik etzen güne batetan bere etxiain hürrünxko, etzen haboro neskatila haren ondotik juan.

1.3. Liskarrak bozkak

- **Hizlaria(k)**: Gustarriet, Michel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Trebitsch, Rudolf
- **Erref**: SAN-002/001
- **Iraupena**: 0:04:18. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:04:18
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
  Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- **Laburpena**: Barrutietako hauteskundeetako bozkak direla-eta liberalen eta erreakzionarioen arteko liskarrak. Kontakizun hori egunkari batetik hartutakoa da.

Transkripzioa
Seküla beno berri hobi k jiten zaizkü gainti orotarik daigün iganteko bozketan gañen. Egün amust erran dügün bezala, Donaphaleun Barthaburu eta Etxas jaunek ez dükeie düdükarik. Xuriak etzien fida haier buurtzera; hasi izan balia erri egingarri ziatekin; enthelegatü die behar diela egun isil-isila beren xokhuetan; gure adixkidek ukhenen dütie errepublikeñen botzak oro eta hamarretarik bederatzik errepüblikein dia Donaphaleuko kantonamentin. Uste gunin Atharratzen luta amini bat bazatekila; xuriek herots hanitx egiten die bena indar guti die. Atharratzen berin bada dozena erdi bat bethi ari harat laster, hunat laster arrathu phuzuatien gisa bena gezurrer guti behatzen da haboronetik ere züntzürra busti nahi din zonbait, zeren bethi bezala, bai han bai bestetan, xuriak adresatzen dire gizonaren tripari eta ez entelegiari, ezin emanez arrazo hunik emaiten die ardu [...] zonbait; etzaitze arren jente entelegüdünak

behatzen eta iruski gormant beno enthelegüdün beita hanitzez haboro xurien indarra Atharratzeko kantonamentin ttipini da. Larrazkenin osto hollia zühañian bezala da ez eror, bai eror. Daigün igantin erori ren da orozbat. Eta orai hitz bat finitzeko. Kazetaxko batetan üsü izkiribatzen dian bati üdüri zaio terribleko mezperetxia egiten diala gure adixkiden deitzez blokarrak; uste dü izierazten dütian jente inozentak; hitz horrek egiten dü alhor mügan khürso baten efeita; behin behin txoriak lotsa dia khursuaren, bena zonbait egunen burian joaiten dia gaña khaka egitera. Gü segürik nahiago gira izan milatakuaz blokar ezi ez aphez üzku lekhator.
Blokarrak adixkide leial, serius dia, bethi prest zerbütxü egitera beren lagunak untsa süstengatzen dutie jüsto den bezala; klar dia, ez traidor. Aphez üzkü lekhatorak aldiz hamarretarik bederatziak feiretan saltzen dien beharri lüze hen pare die zentzia; hamargerrena tronpür bederatziak aisa tronpatzen ahal dienak; sinhetsi nahi ezkütianak aski du juaitia Pagolara, han erranen deie eia gezurrez mintzo gienez. Maulen beldürra bezala badu lanjerra murde Sorhy-k. Ikhustiareki errepüblikako drapeua etseki behar zükian kandidata ezte la ausar, lotsa dela presentatzera, mera eta adjunten bilkhürak desidatü dü. M. Louis Appalaspe Bildozeko merari botzen emaitia. Jaun hori ezta ümen uhure gose; ozta uhuren ondotik ebilten beste zonbait bezala; kargütan jarten bada ezta bere büriari plazer egiteko, bena bai bere herritarren zerbütxü egiteko. Haborosek ezagützen die M. Appalaspe kantonamentian; badakigü laborantxako gaizetan hanitx enthelegatzen dela eta laborarier hanitx etxekitzen da; langiliak ere untsa ezagutzen dütü egün oroz hen artian bizi denaz gañen: sinple da, mundu orok aisa elhestatzen ahal dü; karaktera bezain hun dü bihotza, jaun horen plazerik handiena da zerbutxu on baten egitia. Eztugu erran beharrik orai artin günien kontseiller jeneralak administrazioniaren eretzian eskerra eta estimia txipi ziala eta krerita txipiago horren medioz ez herriek ez partikülarek eztie egündano deus antenitü ez antenitzen ahal; gihauen hunetan hobe dugu jaun horri pausiaren emaitia; igaran aldian hitzeman zien etzela haboro presentatüren; nahi edo ez behar deogü bere hitza etxekerazi eta orok ükhen ahal dezagun gure behar ordietan lagün hun bat eman ditzagun gure botzak L. Appalasperi.

1.4. Lanik gabe aberastu nahi zuen gizona

- **Hizlaria(k)**: Hondagneu, Pierre
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Trebitsch, Rudolf
- **Erref**: SAN-003/001
- **Iraupena**: 0:04:08. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:04:08
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Lanik egin gabe aberastu nahi zuen gizonezko baten istorioa. Mugaz bestaldera, Espainia aldera joan zen zorte bila.

Transkripzioa
Behin bazüzün franzes auher bat nun atsülütoki desiratzen baitzian lanik egin gabe aberastia, jiten ziozü pentsamentiala behar ziala juan Españalat han jentia axtoxiago beitzen Franzian beno. Agian lanik egin gabe aberasturen zela. Arren phartitzen düzü Españari bürüz bi soseki eta nula nazione hortan üsü idor beita ekhia zinez bero, jarten düzü bide bazter batetan itzalian zühain baten pian. Bethi pentsamentütan ari nula behar

zian jokhatü lanik egin gabe aberasteko. Delako bi sosekua arriskatzen dizü paper gorri marsandiza trozatzeko hartarik erosten. Lehen hiriko magasi batetan erosten dizu bi sosen papera eta berriz aitzina phartitzen. Ekhiak erratzen, bidian errhautsa lodi. Ohartürik Españan pürnasak abondant ziela eta agian ükhenen ziala arnatür pürnas ehaiteko erremedioaren, paper gorri hua ejerki karre nabelarekin phikatzen dizü eta espezia plegatzen den gisa bideko errhautsetik paket txipi ahala oro egiten dizü. Lehen herriala heltü onduan oihü arramaz hasten düzü erraiten dialarik: ¿Quién quiere comprar polvo para matar chinches? Hori erran nahi beita: nork nahi du erosi pürnas ehaiteko errhautsik. Phentsa! Familiak osoik.
Purnasez korronpitüik fite sürtut emaztiak juaiten tüzü erremedio balius hortarik erostera zuin lehenka. Fite finitü züzün ene probisionia bena nula beste bi soseki beltzen muien probisione egiteko, holaxe muien horrez egiten dizü nahi ziana oro sos. Ürgüliak hantüik txapel xütarekin jiten düzü Frantziarat aberastürik, mündia estonaturik holako gizon auher bat nulaz hain fite aberastü zen jelos zütüzün eta estonatürik Españan hain aisa hain aisa zenez aberastia. Bena gizon horrek nula bil hala igor. Frantzian fite praubetu züzün ziolarik bere beithan orai berriz praubetürik ere arra berriz badakiat noat juan eta zer egin berriz aberasteko. Azken sosak Frantzian jan abantzatü onduan phartitzen düzü berriz ber lekhialat ustez txoriek ber lekhietan egiten zütien habiak. Ber probisione süertiaz ontsa montatürik, lehen igan zen hirian hasten düzü arramaz: "¿Quien quiere comprar polvos para matar chinches?". Berriz ere emazte horik laster frantzesaren ondotik erraiten zialaik frantsesari: bena zure errhautsak eztizü potelerik; gü gure pürnasekin gütüzü, kasi lehen beno haboroekin gütüzü eta ezpadüzü erremedio hoberik, batere eztizugu haboro nahi. Frantses horrek: ha hori eztüzü ene ogena, otzanakien erremediuaren untsa enplegatzen, nun ahantze betzaitan ordian zier esplikatzeko; orai untsa eni beha ziteie, nula egin pürnasik gabe nahi bazie izan; har ezazie oroek

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-11-15

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com